

# «Memoriarentzat lekua oso klabea da. Lekua aldatzen denean, zure memoria balantzan sentitzen duzu»

## Xabier Gantzarainekin solasean



Ander Zangitu Orbea  
Arkitektoa

Bidaltze data: 2019-03-20  
Onartze data: 2019-05-30

Idazlea eta arte-kritikaria da. Azkoitiarra, probintzianoa. Ups, bururatu zaizkidan hurrengo hitzek Wikipediako definizio batera naramate, eta hobe bera ezagutzeko Zuloa saiakera-liburua irakurtzea. Ni-tik artera eta artetik ni-ra. Euskal arte garaikideko 23 obratan oinarrituta hausnarketa berriak azaleratu dizkigu. Artelanei galdezka memoria eta oroimena hitzek espazioa hartu dute.

**Aldiri: Artean eta oroimenean oinarritutako atzera begirako ariketa bat da liburua. Iragana orainaldira ekartzeko modu bat. Nola definituko zenuke memoria?**


Xabier Gantzarain: Liburuan aipatzen dudana da, eta egia da sentsazio hori baneukala, memoria jotzen dugu gauza segurutzat. Ematen du gure memoria egia handia dela eta hori horrela izan zela uste dugu. Askotan, oroitzean asmatzen da memoria hori, memoria-ariketa egitean forma bat ematen zaio iraganari. Nik badaukat gauza batzuekin akordatzeta eta pentsatzea hori horrela izan zela, baina baliteke ez izatea horrela. Baliteke zuk gogoratzen duzun bezala ez izatea gertaera hori. Alde horretatik saiatu naiz liburuan, kontrazetik, zintzoa izaten, memoria tranpatia, obsesiboa da, eta azkenean memoria norberarena da. Hor faktore asko daude. Horregatik memoria definitzea asko kostatzen zait, esango nuke, memoriak orainari forma ematen dio, edo orainean garen hori memoriari esker garena, baina memoriak ezin zara fida, edozer ekartzen ahal dizu eta oso modu nahasian eta lausoan. Horrekin forma emateko ariketa bat egin behar da, orain egiten duzun ariketa bat da memoria.

**A: Gai desberdinak jorratzen dituzu: nazioa, identitatea, borroka, GAL, Gernika, gatazka, fikzioa, politika, ETA, lekuak, argazkiak, iragana... Eta oraina? Zer ari dira eraikitzen egun artearekin?**

XG: Aukeratutako artelanak 80ko hamarkadatik gaur egunerakoak dira eta haietan badago gizarte-gertaera jakinei, prozesuei, aldaketei... begiratzeko modu bat, baina gaur egun egiten den artean ez dakit hain nabarmena den hori. Gaur lanean ari diren artista gazteek bestelako joerak dakartzate, arteari begiratzeko joera bat eta egungo gaiei heldzean zeharkako modu batean jorratzen dituzte. Azken urteetan, artea aztertzen duen ildo batek dio arteak baztertutako material, ideia, objektuekin... egiten duela lan geroz eta gehiago. Hor uste dut, nahiz eta zeharkako ildo bat izan, erakusten duela arteak gizarteari begiratzeko duen modu bat dela.

**A: Aipatzen duzu «egoera historikoak lan horiek sinbolo bilakatzea ekarri dutela». Historia artelanen bidez kontatu digute. Egun hizkuntza bisualak indar handiagoa duenez, denborak ere aldatu dira. Memorian zer eragin du denborak aldatu izana?**

XG: Gaur egungo gaia denboraren pertzepzioa da, gauzek irauteko eta sedimentatzeko duten ezintasuna, gure garaiazen ezaugarrietako bat. Horrek memoriari zuzen-zuzen eragiten dio, eta ez dut iragana idealizatu nahi, XX. mendeko memoria beste era batekoa da: herri-memoria, memoria popularra, belaunaldi belaunaldi edo ahoz aho pasatako historia. Orain gure memoria dispositibo esterno bat da. Disko gogor bat, nolabait orain gauzak ez dira jakin behar, informazioa eskura dugu (Google jainkoa...) eta uzte



Egilea ~ Laura Maioz

moduko bat dago. Horrek eragin zuzena izan du memorian, liburu eta ikerketa askok diote nola aldatu den gure memoria eta burmuinaren funtzionamendua, irakurketa nagusi zenetik gaur eguneko eredura.

**A: Horren adierazle dira instituzioek duten presa?**

XG: Bai eta kurioa da. Alde batetik, memoria eraikitzeke presa eta urgentzia erakusten dute, baina beste alde batetik Intxaurrondoko 115 urteko etxe bat eraisten dute. Bi jarrera dituzte: memoriak ez du batere balio, berdin da ondarea, modu arbitrarioan erabakitzen da; eta memoria eraikitzeke nahi bat dago. Presazko memoria, ez da benetako memoria, esan daiteke propaganda dela. Ez dut uste horrek irauteko ariketa seriorik egiten dutenik, gehiago dira momentuko keinuak, propaganda. Politika egiteko modu bat, hedatua, mediatikoa... Masei begira. Beste memoria, aldiz, zaintzen ez dena da, irauteko bermerik jartzen ez zaiona.

**A: Horren harira bi irudi etortzen zaizkit burura. Mari Puri Herrero (Iñigo Urkullu lanean) eta Joan Miro-ren (Espainiako errege-erreginak - Frantziako presidentea eta bere emaztea) obrak. Errelatoaren eraikuntzan, zerk du garrantzi gehiago arteak edo artetik eratorritako argazkiak?**

XG: Ematen du arteak galdu duela inoiz izan zuen ahala edo gaitasuna iruditegi bat finkatzen joateko, edo gutxienez iruditegi bat proposatzeko. Besteak beste, iruditegia bazter guztietatik sortzen da eta omnipresentea da. Zentzu horretan arteari kostatu egiten zaio iruditegi horrek pisua izatea gizartean, baina aldi berean, oraindik, artea behar du mundu guztiak bere errelato horri konsistentzia eta sinbolismoa emateko. Hori da gauza hauetan ikusten dudana gauza kurioa bat: nola duten beharrezkoa oraindik artea,

batez ere, sinbolo-ikono mailan, diskurtso bat aurkezteko eta aldi berean berdin zaie Joan Miroren aurrean jarri edo ez dakit zeinen aurrean jarri. Nola joaten diren artelanak aldatzen, Gernika da adibiderik onena, nola joaten diren artelanak deriba batean, aurkezten dituenaren eta bere errelatoa osatzeko ahalmena duen horren arabera.

Berdin Bilboko Arte Ederren Museoak ABC erakusketa egiten duenean, Espainiako erregeak argazkia ateratzen duenean Zuloagaren artelanaren aurrean, eta orduan ematen du Zuloagoari balio bat eman nahi zaiola. Momentuko interesen eta diskurtsoen arabera erabiltzen dira artisten artelanak, berdin da Mirok zuen diskurtsoa edota Zuloaga faxista bat zela.

**A: Artea Estatuaren «erlijio» berri gisa uler daiteke. Jendea museoetara joaten da, salbazio-elementu gisa identifikatzen baitute eta finean doktrinatzeko elementu bat da. Hiri mailan, zer erlazio dute museoek memoriaren eraikuntzan?**

XG: Aspaldi xamarrekoa da museoak katedralekin konparatzea. Erlijioak galdu zuen transzendentziarako ahalmena, orain beste gauza batzuetan topatu nahi da, eta hori da egun museoaren eginkizunetako bat. Gizaki, turista, barrenez hustuak... betetzen joatea zerbaitekin. Horretarako oso garrantzitsua da errelato bat eraikitzea eta memoria bat lantzen joatea. Museoak sorreratik dira memoria lantzeko eta errelato bat kontatzeko leku bat. Beren eginkizuna artelanak bildu, gorde, zaindu... eta erakutsi. Noski, hartzen duen erabaki bakoitzaren atzean dago errelato osatzen ari dela: artisten aukeraketa, aukeraturkotik zer erakusten den, nola, zein zeinekin lotu... Istorio bat asmatzen ari zara, museo guztiak (h)istorio(a) bat asmatzen ari dira.

**A: *Posible da egun, instituzioetan oinarritutako museo batean, memoria-ariketa bat jorratzea erabaki politikoetatik at?***

XG: Badaude museoak eta jendea artearen munduan saiakerak egiten dituztenak bere funtzioztat daukana memoria indibiduala eta, beraz, horren bitartez kolektiboa beste era batean aurkezten joatekoa. Adibidez, 2016ko «Tratado de paz» egin zenean, bazegoen gai hauek modu kritikoa jarduteko asmoa. Kontua da gero asmatu den edo ez. Errezeloa daukat museoek gero eta gehiago ikusten dutela museoetara doan jendea artalde bat bezala. Horretara jarrita daude: derrigortuta zenbakiak ematera, milioi bisitari... Garrantzitsua hori denez, ematen du hobe dela Blockbuster bat edo horrelako erakusketa bat erraz, erakargarri eta mediatiko bat jartzea beste gauza batzuk proposatzea baino. Mutur batetik bestera (de)gradazio ikaragarria dago, proposamen oso desberdinak, eta gaur egun badago aniztasun eta aberastasun bat proposamen komisialetan ere. Haatik, errezeloa daukat joera ez ote den erakusketa mediatikoetara jotzekoa.

**A: «Post ETA» garai honetan museoei garrantzia ematen diete politikariek, adibidez, Bilbo eta Donostia: Guggenheim, San Telmo, Tabakalera, Koldo Mitxelena, Bilboko Arte Ederren Museoa...**

XG: Begira Guggenheim noiztik ari den eta zenbateraino baldintzatu dituen azken urteetako politika kulturalak. Haizea Barcenillak behin baino gehiagotan aipatu izan du, eta guztiz ados nago, egun dugun ikuspegia ezartzeko «buque insignia» izan da, mediatikoa, ez irizpide kultural batzuei erantzunez sortua, eta harrezkero erakutsi du ez dela horren garrantzitsua zer erakutsi, baizik eta beste guztia dela inportantea. Horrek ekarri du bisitarien zenbakien diktadura... 90eko hamarkadatik dator hau dena, Joseba Zulaikak aipatu du zer eragin izan zuen Guggenheim-ek ETArek ahultzean eta desagertzean. Cronica de una seducción liburuan eta gerora ere aipatu du Guggenheim izan dela Euskal Herriak azken urteetan jasan duen aldaketarik handiena. Erabakia izan zen «Ezin gara munduan ezagunak izan erakunde terrorista batengatik». Alde batetik, hiri industrial izandako bat pikutara zihoan, zerbait asmatu beharra dago, eta beste aldetik, operazio urbanistiko erraldoi bat ardazteko enblema bat behar duzu, eta hirugarrenez, «buque insignia» hori Euskal Herriaren irudi bihurtuko da, ordu arte neurri batean ETA izan zena. Operazio oso bat da, izan zen, denbora askoan jorratu zena eta egun ere irauten duena. Horrek Euskal Herriaren irudia aldatu du bai eta museoei eman zaien garrantzia eta funtzioa ere.

**A: 90eko hamarkada aipatuta, hirian ezartzen diren monumentuen politikan eta espazio publikoan oinarritzen da memoriaren eraikitzea?**

XG: Arteak XX. mendean izan dituen iraultza desberdinetan garrantzitsuenetako bat izan da artea jaiste «peanatik», koadrotik materialera, baina monumentuei ez die eragin. Jarraitzen dute egoten eta ideia XIX. mendekoa da. Monumentua da memoria kolektibo bat eraikitzeko, eta proklamatzeko instrumentu bat. Susan Sontag-ek dio ez dagoela memoria kolektiborik, memoriak indibidualak dira, kolektiboa aldarrikapen bat dela, eta hori da monumentuek

egiten dutena, errelato bat aldarrikatu eta proklamatu. Donostian, adibidez, ETArek biktimen plakak jarri behar dituzte kaleetan, eta monumentuak egiteko beste modu bat, kale-izendegia izan daitekeen bezala. Beste tresna batzuk diren bezalaxe. Kontua da zer memoria eraikitzen duten espazioek, edo eraiki daiteke espazioetan.

Nola eraikitzen da memoria espazioen bitartez? Zer memoria eraikitzen da espazioen bitartez? Espazioak gero eta gehiago dira memoriaren kontrakoak. Aseptikoak izan behar dira, denak berdinak dira... Homogeneizazio-prozesu erraldoi bat da eta horrek espazioei eragiten die, ondorioz, gure bizitzetara eta memoriari ere bai.

**A: *Garazi Ansa-ri irakurri nion «Memoriak eta oroitzapenak, osatzeko, denbora behar dute, espazioak behar dituzte». Gaur egun ariketa azkarra egitera bultzatzen ari dira. Zeren beharra dugu?***

XG: Bien beharra dugu. Pertsonak zerbait bagara, denbora eta lekua gara. Lehen aipatutakoari ñabardura bat eginez, memoria indibiduala da, baina modu kolektiboan eraikitzen da. Modu kolektiboan eraikitako memoria indibidual horrek behar ditu denbora eta espazioa. Gaur behar baino denbora gutxiago ematen zaie gauzei eta behar baino espazio gutxiago daukate.

Memoriarentzat lekua oso klabea da. Lekua aldatzen denean, zure memoria balantzan sentitzen duzu, lekuarekin lotzeko modurik ez daukazu. Leku hori ere zure memorian bakarrik existitzen da. Bestetik, lekuak elkarrengandik oso antzekoak bihurtzen hasten direnean, espazio publikoak elkarren kopiak bihurtzen dira. Ia-ia oso antzekoak dira Bartzelonan MACBAko plaza eta Azkoitiko Balda plaza: harrizkoak, ezer gabe, Oteizaren eskultura daukate... Espazioak erabat baldintzatzen du zure bizitza eta hori da gaur egungo borroka. Ematen du espazioak ez duela garrantzirik, baina ez da horrela.

===